

GANADUEN GAÑEAN JOLASA



—¿Zeren gañean jardungo degu gaurko arratsaldean?

—Zuk nai dezunaren gañean.

—Esan dizut len ere elea gu bezin kuperatia dala, non eta basatia ez dan.

Orain esango dizut eman bear zayola janaria albait egosia.

Askoz obeto chegosten du, batezere gatz piska bat ematen bazayo.

Badakizu zenbat gustatzen zayon gatza ele mueta guztiari.

Noizean bein piska bat ematearen asko gaitzetatik legardatzen dira.

Da egon oi dan bezin aresti egotea gatza.

Gutziz on andia egingo lioke eleari eguneroko gatz piskacho batel;; zeren ematen du jateko zalea eta chegosten laguntzen du guztiz: gañera lurren ongarrirako ere guztiz da ona.

Badakit jana egostea eta gatza ematea gauza garestia dala; baña on da jakitea, batezere ganadua miñez dagoaneko

Ez du ezerk ere ematen irabazi geiago abereak baño.

Argatik bear da jakin zer dan ona eta zer ez elearentzat.

Esan dizut eman bear zayola jaten guchi eta maiz

Bear duela garbitasua andia eta etzauntz idorra.

Egon bear du albait ikuskiñean zer gerta ere, eta izutia dalako

Abere mota asko arkitzen dira.

Bikor mota eta aragi mota.

Badira beyak jaten duten guztia esne biurtzen zayotenak.

Oro bat gertatzen da abere illedunarekin.

Batzuek dute ille ona eta aragi charra, besteak aragi ona eta ille charra.

Badira atzegira gizontzen diranak eta ogei eta bost librako opak dituztenak.

Arkumeak izan oi du aitaren ille mota eta aragia amarena.

Belar chikia dan tokian ganadu chikia dala esan oi da, eta belar andia dan tokian ganadu andia.

Erri bakoitzean ikusi bear da zer abere mot komeni dan.

Toki apitetan eta amiltzak diranetan ez da ganadu andirik komeni; toki zelayetan berriz ganadu andia ohea da chikia baño.

AGUSTÍN PASCUAL DE ITURRIAGA.

